

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	SISTEMA ERAGILEAK INSTALATZEA ETA EGUNERATZEA (zeharkakoa)	Iraupena	80
		Espezifikoa	
Kodea	UF0852		
Lanbide-arloa	INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
Lanbide-eremua	Sistemak eta telematika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Sistema mikroinformatikoak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Sistema eragile informatikoen instalazioa eta konfigurazioa. (zeharkakoa)	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Sistema mikroinformatikoaren funtzionalitateen ustiapena (zeharkakoa)	Iraupena	60

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0219\_2 OINARRIZKO SOFTWAREA SISTEMA MIKROINFORMATIKOETAN INSTALATZEA ETA KONFIGURATZEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Sistema mikroinformatiko batek funtzionatzeko oinarrizko softwarearen ezaugarriak eta funtzioak sailkatzea.

EI1.1 Sistema mikroinformatikoen arkitektura nagusiak deskribatzea eta horiek osatzen dituzten bloke funtzionaletako bakoitzaren xedea edo misioa zehaztea.

EI1.2 Sistema eragilearen kontzeptua azaltzea eta sistema mikroinformatikoan betetzen dituen funtzioak identifikatzea.

EI1.3 Sistema operatibo baten elementuak bereiztea bakoitzaren funtzioak identifikatuta eta zehaztaperen teknikoak kontuan izanik.

EI1.4 Ekipo informatikoetan erabiltzen diren sistema eragileak eta bertsioak sailkatzea eta horien ezaugarri nagusiak eta elkarren arteko aldeak zehaztea, zehaztaperen teknikoaren arabera.

EI1.5 Sistema eragilearen instalazioan esku hartzen duten faseak identifikatzea eta ekipo informatikoaren eskakizunak egiaztatzea, instalazioa egin daitekeela bermatzeko.

A2: Sistema eragileak konfiguratzeko eta instalatzeko prozesuak aplikatzea ekipo informatikoaren funtzionalitateak aktibatuzeko, jasotako zehaztaperen arabera.

EI2.1 Behar bezala zehaztutako kasu praktikoetan, ekipo informatiko batean sistema eragile bat instalatzea ekipoa martxan jartzeko:

- Ekipo informatikoak oinarrizko softwarea instalatzeko ezinbestekoak diren baliabideak badituela eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatzea.
- Instalazioa egin behar den ekipoa prestatzea; horretarako, formateatu egin behar da eta zehaztaperen adierazitako partizioak sortu.
- Sistema eragilea instalatzea dokumentazio teknikoaren urratsei jarraiki.
- Sistema konfiguratzea adierazitako parametroekin.
- Zehaztaperen adierazitako utilitate-programak instalatzea.
- Instalazioa egiaztatzea abiatze- eta gelditze-probak eginda.
- Egindako lana dokumentatzea.

EI2.2 Ezaugarri berdinak dituzten ekipo informatikoetan sistema eragileen instalazioa automatizatzeko erabiltzen diren prozedurak identifikatzea klonazioko software-erremintak eta laguntzarik gabeko bestelako instalazio-erremintak erabilita.

EI2.3 Behar bezala zehaztutako kasu praktikoetan, ezaugarri berdinak dituzten ekipo informatikoetan sistema eragile bat instalatzea jasotako zehaztaperen arabera:

- Ekipoetako bat prestatzea sistema eragilea eta adierazitako utilitateak instalatzeko.
- Sistema eragilea instalatzea eta konfiguratzea dokumentazio teknikoaren urratsei jarraiki.
- Zehaztaperen adierazitako utilitate-programak instalatzea.
- Ekipoak klonatzeko software-erreminta hautatzea.
- Instalatutako sistemaren irudiak lortzea gero banatzeko.
- Disko-irudiak kudeatzeko erreminten bitartez, jatorrizkoaren ezaugarri berdinak dituzten beste ekipo batzuetan ezartzea lortutako irudi horiek, baliabide funtzionalak aktibatzea lortzeko.
- Abiatze- eta gelditze-probak egitea instalazioak egiaztatuzeko.
- Egindako lana dokumentatzea.

EI2.4 Horri buruzko dokumentazio teknikoaren interpretatzea, sektorean gehien erabiltzen den atzerriko hizkuntzan argitaratuta egonda ere, eta lagungarri moduan erabiltzea sistema eragilearen instalazioan.

A3: Ekipo informatiko baten sistema eragilea eguneratzea funtzionalitate berriak txertatzeko eta segurtasun-arazoak konpontzeko, zehaztapen teknikoek jarraiki.

EI3.1 Sistema eragilearen software-osagaien artetik, berriz doitu beharra izan dezaketenak identifikatzea eguneratzea gauzatzeko, zehaztapen teknikoak kontuan izanik.

EI3.2 Eguneratze-elementuak lortzeko iturriak identifikatzea eta sailkatzea, adabakiak ezartzeko prozesuak eta sistema eragilearen eguneratzeak egiteko.

EI3.3 Sistema eragilea eguneratzeko prozedurak deskribatzea, ekipo informatikoan informazioaren segurtasuna eta integritatea kontuan izanik.

EI3.4 Behar bezala zehaztutako kasu praktikoetan, sistema eragile bat eguneratzea funtzionalitate berriak txertatzeko, jasotako zehaztapenen arabera:

- Sistema eragiletik eguneratu beharreko osagaiak identifikatzea.
- Softwarea eguneratzeko eskakizunak egiaztatzea.
- Adierazitako osagaiak eguneratzea.
- Egindako prozesuak eta sistemaren gainerako osagaiekin interferentziarik ez dagoela egiaztatzea.
- Eguneratze-prozesuak dokumentatzea.

## **Edukiak**

### **1. Sistema mikroinformatiko baten arkitekturak.**

- o Ordenagailu baten eskema funtzionala. Azpisistemak.
- o Prozesatzeko unitate zentrala eta unitatearen elementuak.
  - Barne-memoria, motak eta ezaugarriak.
  - Sarrera- eta irteera-unitateak.
  - Biltegiatze-gailuak, motak eta ezaugarriak.
- o Busak.
  - Motak.
  - Ezaugarriak.
- o Azpisistema fisikoen eta logikoen arteko korrespondentzia.

### **2. Sistema eragile informatikoaren funtzioak.**

- o Oinarrizko kontzeptuak.
  - Prozesuak.
  - Fitxategiak.
  - Sistemari egindako deiak.
  - Sistema eragilearen nukleoa.
  - Komando-interpretatzailea.
- o Funtzioak.
  - Erabiltzailearen interfazea.
  - Baliabideen kudeaketa.
  - Fitxategien administrazioa.
  - Ataza-administrazioa.
  - Laguntza-zerbitzua.

### **3. Sistema eragile informatiko baten elementuak.**

- o Prozesuen kudeaketa.
- o Memoriaren kudeaketa.
- o Sarrerako eta Irteerako sistema.
- o Fitxategi-sistema.
- o Babes-sistema. Komunikazioen sistema.
- o Aginduak interpretatzeko sistema.
  - Komando-lerroa.
  - Interfaze grafikoa.
- o Sistemaren programak.

### **4. Uneko sistema eragile informatikoak.**

- o Sistema eragileen sailkapena.
- o Software librea.
- o Ezaugarriak eta erabilera.
- o Diferentziak.
- o Bertsioak eta banaketak.

### **5. Sistema eragile informatikoen instalazioa eta konfigurazioa.**

- Instalaziorako eskakizunak. Hardware eta software bateragarritasuna.
- Instalazio-faseak.
  - Abiatze-gailuaren konfigurazioa BIOSean.
  - Diskoak formateatzea.
  - Diskoen partizioa egitea.
  - Fitxategi-sistema sortzea.
  - Sistema eragilearen eta gailuen konfigurazioa.
  - Utilitateen eta aplikazioen instalazioa eta konfigurazioa.
- Instalazio-motak.
  - Gutxieneko instalazioak.
  - Instalazio estandarrak.
  - Instalazio pertsonalizatuak.
  - Instalazio atendituak edo atenditu gabeak.
  - Sareko instalazioak.
  - Irudi bat leheneratzea.
- Instalazioa egiaztatzea. Abiatze- eta gelditze-probak.
- Instalazioaren eta konfigurazioaren dokumentazioa.

#### 6. Partizioen eta disko gogorren erreplikazio fisikoa.

- Segurtasun-kopia egiteko programak.
- Klonazioa.
- Erreplikazio-prozesuaren helburuak eta funtzionaltasuna.
- Segurtasuna eta prebentzioa erreplikazio-prozesuan.
- Diskoen partizioak.
  - Partizio-motak.
  - Kudeaketako erremintak.
- Sistemen erreplikak eta irudiak sortzeko eta ezartzeko erremintak:
  - Informazioaren jatorriak.
  - Sistemen erreplikak eta irudiak ezartzeko prozedurak.

#### 7. Sistema eragile informatikoa eguneratzea.

- Eguneratze-iturrien sailkapena.
- Eguneratze automatikoa.
- Laguntza-zentroak.
- Eguneratze-prozedurak.
- Sistema eragileak eguneratzea.
- Software-osagaiak eguneratzea.
  - Osagai kritikoak.
  - Segurtasun-osagaiak.
  - Kontrolagailuak.
  - Bestelako osagaiak.
- Eguneratzearen egiaztapena.
  - Eguneratzearen dokumentazioa.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Sistema mikroinformatikoak